

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakaria aukera-berdintasunaren eta irakaskuntzan ahalegintzea eskatzearen alde agertu da

Bi ideia horiek hartu ditu ardatz Lehendakariak ikasturte berriari hasierako emateko Nafarroako Unibertsitate Publikoan eman duen hitzaldian; gainera, Unibertsitateari "gestioan egin duen ahalegina" eskertu dio.

Viernes, 13 de septiembre de 2013

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina, Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP) 2013-2014 ikasturteari hasiera emateko hitzaldian, aukera-berdintasun "eraginkorra"ren alde eta ikasleei bikaintasun "utziezina" eskuratzeko "ahalegintzea eskatzea"ren alde agertu da. Horiek dira, hain zuzen, Foru Gobernuaren hezkuntza-arloko jardueren "funtsezko" bi printzipioak.



Barcina Lehendakaria ikasturteari hasiera emateko NUPen eman duen hitzaldian.

Horren harian, [hitzaldian](#) azpimarratu du [Nafarroako Gobernuak unibertsitateko ikasketetarako bekak eskatzeko gutxieneko kalifikazioari 5ean eutsiko diola](#) 2013-2014 (Hezkuntza Ministerioak 6,5era igo du). "Unibertsitateko ikasketak egiteko gai direla egiaztatzen dutenez, ekonomiak ezin du eragozpen izan", esan du Lehendakariak.

Dena den, ikasleen errendimenduaren eta emaitzen segimendua egiteko kontrolak egitearen alde agertu da. Lehendakariak esan duenez, "NUPen ikastea ez da banako proiektua, Nafarroako gizarteak, bekarik gabe ere, prestakuntza-gastuaren %85 ordaintzen baitu". Horregatik, Lehendakariaren iritziz, unibertsitateko ikasleei azaldu behar zaie "gizarte-proiektuetan parte hartzeak eta dauzkaten gaitasunak guztion onerako modu solidarioan baliatzeak garrantzi handia dutela".

NUPen ahalegina eskertu du

Bestalde, Barcina Lehendakariak Unibertsitateari helarazi dio Gobernuak "berriaz aintzatesten duela erakundearen gestio-ahalegina, errealismo eta erantzukizun eredua baita". Izan ere, "gestio-lana lasaitasunez egin ondoren, ez da atsegina jarrera aldatzea, baina solidarioa, aberasgarria eta eredugarria da helburuak lortzeko ezinbesteko ahalegin hori egitea".

Horren harian gogoratu du Nafarroako Gobernuak, doitzeen eraginak “arintze” aldera, matrikulen prezioak %1,3 bakarrik igo dituela eta joan den ikasturtean, ikasketetan laguntzeko 3,2 milioi euro jarrita, aurreko ikasturtean baino 200 ikasle gehiagok jaso zituztela bekak. Hasi berri den ikasturteko deialdirako 3,6 milioi euro jarri dituzte; deialdia astelehenean argitaratuko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Ikasturteari hasierako emateko ekitaldia

Ekitaldia El Sario eraikineko Fernando Remacha gelan egin dute eta Nafarroako agintari nagusiak eta unibertsitate-komunitateko kideak bertaratu dira. Hasteko, segizio akademikoa egin dute, banderaduna, Mauro Malve, aitzindari zela. Gero, Unibertsitateko idazkari nagusi Javier Etxeberriak joan ikasturteko memoria irakurri du.

[Irekitze-hitzaldia](#) Aljebrako katedradun Luis Miguel Ezquerrok eman du. Hitzaldiaren izenburua zen “Cómo encontrar una aguja en un pajar” eta gaia Interneteko biltzaileen aljebra-oinarriak. Ekitaldiaren amaieran errektoreak, [Julio Lafuentek](#), eta Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak hartu dute hitza; Lehendakariak inauguratu du, hain zuzen, 2013-2014 ikasturtea.

Musikari dagokionez, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko hari-laukoteak eta Unibertsitateko Abesbatzak, Arturo Goldaracena zuzendari zuela, qirotu dute ekitaldia.